



Ihesi

Pirinioetako zeharkaldia

TESTUA: GORKA AZKARATE
ARGAZKIAK: AITOR CASADO

Hendaiatik Hiru Erregeen Mahaira (IV)

Larraine-Hiru Erregeen Mahaia

Euskal Herriko sabaian


Iritsi da zeharkaldiari merezitako akabera emateko tenorea; Pirinioetako lehen bi milakoa igo ostean, Orhi, Hiru Erregeen Mahaia da gure azken jomuga. Lehenago, ordea, gailur ikusgarri andana igotzeko aukera izango dugu, Belagoara bidean, euskal mendietan irudika daitekeen ibilaldi ederrenetako bat osatuz. Poza eta pena nahastuko dira Euskal Herriko sabaira heltzean.

Larraine mendatea, 1.577 metroko garaiera. Orhi erraldoia jaitsiaz amaitu genuen aurreko etapa eta hemen hasiko dugu orain txangoa, Orhiren oinetan. Kontuan hartzekoa da ia uneoro 1.500 metrotik jaitsi gabe ibiliko garela, etengabeko igoera eta jaitsierei aurre eginez, horietako zenbait gogortasun handikoak, gainera. Edozein

kasutan, ezin uka edertasun handiko etapa daukagula aurretik, eta izugarri gozatuko dugula. Orhi agurtu eta, gailurrerian aurrera, Belagoarantz abiatuko gara.

Bidea ez da hain nabarmena zenbaitetan; uneoro gailurreriako punturik garaiena jarraitzea litzateke, beste irizpideen gainetik, balekoa. Larraine-

ko mendatetik abiatu eta, igoera lasaian, Gaztarriako muinora helduko gara (1.729 m). Behakoa atzera itzuliz gero, Orhiren ikuspegia gozatu ahal izango dugu etengabe. Gaztarriako gailurra baino leku aproposagorik ez da gibelera begiratzeko. Eguneke lehenengo gailur handia begien parean dugu honez gero: Otsogorri.



1 Larraine-Belagoako aterpea

15 km, 1.200 metroko igoera metatua. Etapa Belagoako aterpean amaitzea da proposamena. Aterpea itxita dago egun eta, ez dirudi epe laburrean zabalduko dutenik. Autoa aterpearen inguruko aparkalekuan zain izatea da, egokiena, eta ostatu bila izaba aldera jotzea. Lainoan bidea nahasgarri samarra suerta daitekeela kontuan izan behar da.

Elursoko leporaino eramango gaituen jaitsiera bizkorren ostean, Otsogorriko mazelak igotzeki ekingo diogu, geure burua gehiegi estutu gabe. Otsogorritxipia muinora helduko gara lehenik, eta belarra eta harria tartekatzen diren gailurreria ederra gaingitu ostean, gailur nagusira helduko gara (1.916 m). Aipagarria da Otsogorriko gailurrera Laugibar herritik

(Zuberoa) doan bide paregabea, gure lurretan berdinik ez duen Holtzarteko mendi zintzurra zeharkatuz –zorabigarria da bertako zubi ezaguna gurutzatzea!– eta izen bereko basoan gora eginaz. Larraineko mendatetik abiatuz Otsogorriko gailurra lortzeak sorrarazi digun poza esponentzialki handituko litzateke igoera Holtzartetik egin izan bagenu; zeharkaldi bat osatzen

aritzeak, baina, gauza hauek ditu... Edozein kasutan, aitzakia paregabea da paraje hauetara berriro itzultzeko.

Otsogorritik beldurtzeko moduko jaitsiera daukagu zain, Utururdinetako lepora. Igo dugun aldetik erliebe etzanekoa da Otsogorri; ez da hala gertatzen jaitsiera burutuko dugun isurialdean. Belarrezko malkar piko honek ematen dio, berez, Otsogorri, bere

Larrako karst labirintoa; atzean Kartxela, Orhi, Barazeta eta Lakora.
Aurreko orrialdean Hiru Erregeen Mahaitik Auñamendiak, erdi-erdian Midi d'Ossau.





Petretxema Hiru Erregeen Mahaitik.

eite ezagunena. Esan gabe doa jaitsiera hau makilez lagunduta egitea komeni dela, batipat belazea bustia dagoeneta. Utururdinetako lepoa, 1.662 m.

Erabaki bat hartu beharko dugu jarraian: Barazea edo Txardekagaina igo ala eskuinetik saihestu. Igoz gero Otsogorriren malkar pikoaren gaineko ikuspegi paregabeaz gozatu ahal izango dugu, baita jarraian igoko dugun Kartxelaren gainekoaz ere. Tontorretik (1.889 m) jaitsiera erraz bat egin ostean Belaiko lepora helduko gara, Kartxelari (1.979 m) aurre egin aitzinetik. Posible den arren ez da gomenda-

garriena gailur ezagun hau Belaiko lepotik zuzenean erasotzea, egokiagoa da zeharbide bat egitea, nola Binbaletako lepotik, hala Belagoako harana menderatzen duen Keletako haitzera eramango gintuzketen hegoaldeko goi larreetan dauden xendak jarraituz —ez da ezinbestekoa, ordea, Lapatiako leporaino heltzea—. Posible da, halaber, Belaiko lepotik Binbaletako lepora heldu eta Kartxela igo gabe aurrera jarraitzea. Baina merezi du ahalegin txikia egin eta Kartxelara igotzeak, Nafarroako Pirinioetan parekorik ez duen mendia baita Kartxela, kokapen

estrategiko eta forma bereziagatik. Gomendagarria da, era berean, Binbaletako lepora heldu aurretik Keletako muinora hurbiltzea (1.904 m), hori baita Belagoako haranetik ikusten den Kartxelako aurpegia, eta ondorioz, hortik ikusten baita ondoen Belagoako harana bera. Minutu gutxiko kontua da Kartxelatik Keletarainokoa osatu eta berriz Binbaletako lepora itzultzea.

Binbaletako lepotik (1.691 m) izen bereko gailurra igotzeak (1.751 m), ez digu ahalegin handirik eskatuko. Jaitsiera azkarrean Belagoako haraneko atera inguratuko gara jarraian, Arrakogoitiko lepora. Belagoako aterpetxea begien bistan daukagu dagoeneko, eta mendia inguratzen duten hamaika ganadu bidexkatak edozein aukeratuz osatuko dugu harainokoa. Hala ere, etapa modu ikusgarrian amaitze aldera, aterpetxearen gainalden dagoen gailurra igotzea proposatzen da: Lakora (1.877 m). Haraneko ikuspegi latza dago han goitik. Larrakogoitiko lepotik Kortaplanako gailurreria jarraitu behar da zenbait malda piko gaudituz. Belagoako aterpetxera zuzen zuzenean jaitsiko gara, azkar-azkar. Lakora mendiaren iparraldeko igoera bidea Kakueta edo Ehujarreko arroiletan barrena dator, lehenik, eta goi larre ikaragarri batzuk gaudituz, ondoren. Merezi du. Horratx itzultzeko beste arrazoia. Belagoako aterpetxea, 1.428 m.

Barazeara bidean, nora begiratu ezin asmatuta; ezkerrera, eskuinera eta oinetara.



2 Belagoako aterpea-Hiru Erregeen Mahaia

14 km, 1.200 metroko igoera metatua. Mendiko aterpetik abiatzen dena ez da Hiru Erregeen Mahaira igotzeko biderik errazena, baina bai, agian, ikusgarriena. Hendaiatik abiatu genuen zeharkaldia amaitzeko imajina daitekeen modurik ederretenakoa da: Euskal Herriko sabaira ailegatzea, biderik bihurrienetik igoaz. Bidea zailtasun handiegirik gabe jarraitu daitekeen arren, kontuan hartu behar da zeharkaldi osoko biderik nahasgarrienari ekingo diogula. Larrako labirintoan arreta handiz ibiltzea gomendatzen da. Ez legoke soberan bidea ezagutzen duen edo goi mendian eskarmentua duen norbaitekin abiatzea.

Belagoatik Hiru Erregeen Mahaira doan xenda ez da bide guztian oso nabarmena, tarteka uren banalerroko margo ikur zuri gorriek eta zenbait harri pilatxok zehazten badute ere. Zemetoko pasabidera joko dugu lehenik beheranzko bidexka jarraituz. Hemendik errekastoa amiltzen da Belagoako haranera. Pasabidea igaro bezain laster bideak ekialdera egiten du eta Lapazarrako muinoa harturik erreferentzia Larrerriako lepora heldu-

ko gara. Bide nabarmenenak ekialderantz jarraitzen du, Lescuneko harana mugatzen duen Anayeko lepora. Hor-tik jarraituko dugu Ukerdiko tontorra inguratzen hasten den arte. Une hone-tan zentzuzkoena Solanako sakone-rantz jotzea izango da, Linzako men-diko aterpetik datorren bidearekin bat egin eta igoera zailtasunik gabe amaitzeko. Posible da, hala ere, Ukerdiko tontorra (2.252 m) igo eta Budogiako gainetik (2.367 m) igaroz osatzea, Hiru

Erregeen Mahairainokoa gailurreri paregabea zeharkatuz. Baina aukera hau ez da gomendagarria zaildu gabe-ko mendizalearentzat.

Linzatik datorren bidearekin bat eginda aisa egingo dugu gorantz, Escouesteko lepora daraman bidexka jarraituz hasieran eta Hiru Erregeen Mahaira doan bide nabarmena jarraituz ondoren, azken malda harritsu eta aldapatsuak gaintitu eta Euskal Herri-ko gailurrrik garaienara helduko gara: Hiru Erregeen Mahaia, 2.444 m. Gailurrean Nafarroako patroï Xabierko Frantziskoren brontzeko giza irudi bat dago, baita bere gazteluaren make-ta ere. Ikuspegia norabide guztietan da zoragarria, baina aipagarria da, ger-tuan dituen Auñamendi –iparral-dean–; eta Petretxema –hegoaldean– mendien gaineko panorama berdinga-bea. Pirinioetako gailur garaiaogak ere ikusiko ditugu behakoa ekialderantz zuzenduz gero. Erraz atzemango ditu-gu, besteak beste, Midi d'Ossau, Bisaurin edo Aspeko mendi multzoak.

Zeharkaldia berez Hiru Erregeen Mahaian amaitzen bada ere, bertan luze geratuko ez garenez, norabait itzuli beharko dugu; ohikoena etorri-garen bidetik ostera Belagoako ater-petxera itzultzea litzatekeen arren, jaitsiera azkar eta errazagoa egingo genuke Linzako aterpetxera. Hartara ibilbide ederra osatuko genuke, ibi-laldia leku batean hasi eta bestean bukatuz. Helmugara ailegatu eta biz-karzorroa kendu orduko amaitu iza-naren pena sentitu dugu. Eta hurren-go zeharkaldia prestatzeari ekin diogu berehala, asko baitira oraindik gure geografian bisitatu beharreko txokoak eta igo beharreko gailurrak. Asko, zorionez. ■

Mendizaleak, ilaran, Hiru Erregeen Mahaira bidean.





EUSKADI BTT-N

**NATURA
KULTURA
GASTRONOMIA
KIROLA**

**Zure bizikleta
prestatu!
Zatoz euskadiko
BTT zentroetara**

btt euskadi
zentroak

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, MERKATUA
ETA TURISMOA
DEPARTAMENTUEN ARRETAN
KONTATU: 945 00 00 00

ibilbideak behera kargatu

www.paisvascoturismo.net